




EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Patxi Alaña jauna

Bilbotik, 2011ko apirilaren 11an

Jauna, agur:

Zure gutuna eta dokumentazioa jaso da, bai eta zure kezka ulertu ere. Diozunez, Iruñako aztarnategien gainean hondeamakina batzuk ari dira lanean, eta zuloak egiten dabilzan lekuan arkeologi gairik egonez gero, pentsatzekoa da jarduera horrekin kalte egin liezaieketela, bertako aztarnei. Uste izatekoa da, horko indusketak arkeologo profesionalen zuzendaritzapean egiten badira behintzat, aurretik azpian egon zitezkeen materialak ongi babesteko behar ziren neurriak hartuko zirela.

Kontuan hartu behar da, nolana ere den, Euskaltzaindia ez dela arkeologiaz arduratzen den erakundea, eta, alde horretatik, ez dagokiola iritzia eskatu ere egin ez zaion arlo horretan eskua sartzea.

Zure interesa eskertuz, adeitasunez agurtzen zaitu

Xabier Kintana
Idazkariak